

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### LURRALDE OREKAREN SAILA

**Diputatu Nagusiaren 119/2020 Foru Dekretua, martxoaren 16koa, zeinaren bidez Arabako Lurralde Historikoko Larrialdietako Foru Plana aktibatzen baita, COVID-19ak eragindako osasun-larrialdia dela eta**

Euskadiko Babes Zibileko Plana (LABI) formalki aktibatu da, COVID-19ren osasun-larrialdiaren ondorioz.

Foru Gobernuaren Kontseiluaren Foru Dekretuak, Arabako Lurralde Historikoko Larrialdietako Foru Plana (ALHLFP) arautzen duenak, 5.5. atalean honako hau dio: "Larrialdiaren ondorioz Euskadiko Babes Zibileko Plana aktibatzen denean, haren baldintza guztiak aplikatuko dira, eta ALHLFP LABIn sartuko da".

Era berean, Euskadiko Babes Zibileko Planaren (LABI) V. tituluko III. kapituluko 3.2 atalak honako hau xedatzen du: "Euskadiko Babes Zibileko Lurralde Plana 1. egoeran edo hurrengoetan aktibatzeak eragingo dien beheragoko planak integratzea ekarriko du, eta automatikoki aktibatzea, halakorik ez badago".

Nahiz eta ALHLFP joan den martxoaren 13an aktibatu zen, egokia da aipatutako aktibazioa formalizatzea, ALHAOn argitaratzeko, herritarrek horren berri izan dezaten.

ALHLFPren 4.1 atalean xedatutakoaren arabera, zeinak Diputatu Nagusiari Planaren Zuzendaritza ematen baitio, Lurralde Oreekako diputatuak hala proposatuta,

#### PROPOSATZEN DUT

Lehena. 2020ko martxoaren 13tik aurrerako ondorioekin, Arabako Lurralde Historikoko Larrialdietako Foru Plana aktibatu eta Euskadiko Babes Zibileko Lurralde Planean (LABI) integratzea.

Bigarrena. Foru Dekretu hau, ALHAOan argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 16a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Lurralde Oreekaren Saileko foru diputatua*

**IRMA BASTERRA UGARRIZA**

*Kabinete eta Komunikazio zuzendaria*

**MARÍA ELENA FERREIRA SEBASTIÁN**

*Lurralde Oreekaren zuzendaria*

**JESUS MARÍA GUINEA DÍAZ DE OTALORA**